



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko irailaren 24an

93 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko zenbait arau aldatzen dituena ([3. or.](#)).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, alargun pentsioetarako laguntza bereziei buruzkoa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua ([6. or.](#)).

—Foru Lege proposamena, basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeri buruzko martxoaren 5eko Foru Legea aldatzekoa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua ([8. or.](#)).

—Foru Lege proposamena, pentsioen kopuruak lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzeko osagarriak jarri eta beste laguntza-prestazio batzuk hobetzeko, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua ([10. or.](#)).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da argiteria instalazio eta aparatuak arautzeko foru lege proiektu bat igor dezan, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua ([13. or.](#)).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzesten du Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren jarrera, Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztua ([14. or.](#)).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa eta prezio publikoei buruzko martxoaren 27ko 7/2001 Foru Legea bete dezan, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua ([15. or.](#)).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehentasuna eman diezaien Foru Komunitateko errepideei buruzko 1998-2005erako planeko zenbait obrei, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Erretiratutako mozioa ([16. or.](#)).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, ezgaitasun psikikoa duten pertsonentzako aisialdirako programei buruzkoa, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak egina (17. or.).
- Galdera, oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko Foru Legearen betetzeari buruzkoa, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak egina (18. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuako kontu-hartze sistemari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (19. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:**

- Biltzarrean izan diren altak eta bajak (20. or.).
- Foru parlamentari Mariné Pueyo Danso andrea Batasuna Parlamentuko Taldean sartzea (20. or.).
- Nafarroako Parlamentuak izendatu behar duen Nafarroako Kontseiluko kide bat hautatzea (21. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko zenbait arau aldatzen dituen

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko irailaren 17an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobe-teari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artiku-luak aitortzen dion legegintzarako ekimena erabi-liz, Foru Diputazioak, 2001eko abuztuaren 27an hartutako erabakiaren bidez, Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko zenbait arau aldatzen dituen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 108 eta 125. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledu-nen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko zenbait arau aldatzen dituen Foru Lege proiektua pre-miazko prozeduraz bideratzea.

Bigarrena.- Proiektu hartaz irizpena emateko ahalmena Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldiz-kari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **zortzi egun balioduneko epea irekiko da, 2001eko urriaren 4ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarri-takoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru par-lamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2001eko irailaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proiektua, Sozietateen gai-neko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko zenbait arau aldatzen dituen

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abendua-ren 30eko 24/1996 Foru Legearen helburua da entitate juridikoek izandako mozkinak kargatzea.

Gure inguruko sistema fiskaletan aldaketak izan direlarik eta Nafarroako ekonomiaren heda-kuntza erritmoa baretu delarik, zenbait aldaketa sartu behar dira lege hartan.

Sozietateen gaineko Zerga erreformatzen denean, beti gai interesgarri bera airatzen da: karga tasa bere hartan utzi ala murriztu behar den.

Ezin uka daiteke enpresa txikiak oso eragile handiak direla lanpostuak sortzeko eta dudarik gabeko bultzada eta dinamismoa ematen diotela jarduera ekonomikoari.

Hala ere, kasu gehienetan entitate horiek kre-ditu eta finantza murriztapenak izaten dituzte. Enpresa txikien zailtasun horiek, askotan, ezin-tzen diete hainbat inbertsio-erabaki hartzea, lan-postuak sortzea eta teknologia berriak eskura-tzea.

Bestalde, zenbait ogasun-adituk diote inber-tsiorako kreditu fiskalak, Foru Komunitateko zerga araubidean ezarrita dauden bezalakoak, eta zehazkiago esateko aktibo finko material berriak erosteagatiko kenkaria, ez direla hain inportante-ak enpresa txikien inbertsio-erabakiak hartzerako-an, haien kezka nagusia beren finantza zailtasu-nei nola aurre egin izaten baita. Esaten ere da sei milioi eurotik behera fakturatzen duten enpresen 100eko 4k baizik ez duela erabiltzen berrinberti-tzeagatiko salbuespena.

Hori kontuan harturik, bada, eta entitate horien jarduera ekonomikoaren garapena bultzatzeko, 100eko 32,5era jaitsiko zaie Sozietateen gaineko

Zergaren karga tasa orokorra sei milioi eurotik behera fakturatzeko duten entitateei, honako helburuak iritsi beharrez:

a) Gure inguruko sistema fiskalekin baterago ibiltzea zerga gaietan, nola Estatuan nola Komunitate Autonomoetan joera orokorra ageri baita enpresa-errenten zergetan karga tasa murrizteko, asko ez bada ere, hazkunde ekonomikoari aurrera eragin eta ekonomiaren ziklo hedakorra luzarazteko.

Hala ere, enpresen karga fiskala horrela murrizteak ez du ezertan mehatxatzen aurrekontuen egonkortasuna, Barne Produktu Gordinaren gorakadaren ondoriozko bilketa-gehikuntzak kontentsatuko baitu.

b) Enpresa horietako kapitalaren kostua gutxitzea eta inbertsioen etekinak konpetitiboagoak izan daitezen lortzea, lanpostuak sortzea erraztuz eta azken buruan gizartearen egonkortasuna eta barne lotura handituz.

Helburua da zerga karga arinduz enpresen inbertsio erabakiei pizgarriak ematea, kontuan harturik inbertsio estrategiak, hein batez, inbertsiorako behar den gehigarritzko kapitalak jasanen dituen zergen mende daudela.

c) Enpresa txikien finantza egitura hobetzea, ahal den neurrian beren kreditu eta finantza zailtasunak gutxitzeko.

Enpresa txikia zer den mugatzeko, negozio zifraren zenbateko garbia hartzen da aintzat eta haren atalasea aurreko ekitaldiko sei milioi euroko kopuruan ezartzen da.

Kasuko enpresa txikia, ordea, ez da halakotzat hartuko atalase horretatik gorako zifra duen entitate batek zuzen nahiz zeharbidez bertan 100eko 25etik gorako partaidetza duenean, eta gardentasun fiskaleko araubidean zerga ematen duten sozietateak ere kontzeptu horrez kanpo uzten dira.

Erreforma osatzeko, aldatzen da Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legeko 72.3 artikulua, zenbait kenkariri kuota likidoaren 100eko 35eko muga ezin aplikatu zaien kasuak gehiagotzeko. Hortaz, 63. artikuluko kenkariak, hau da, sortu berriko entitateek jarduera hasi bitartean aktibo finko material berrietan egindako inbertsioei dagokienak, ez du izanen goiko muga hori.

Azkenik, foru lege honek indar hartzen duenetik aurrera, indargabetzen da 24/1996 foru legeko 63. artikulua azken lerroaldea, zergaren subjektu pasiboen artean bereizkeriarik izan ez dadin, bereizkeria hori ez bailitzateke bat etorriko zerga

gaietan nagusi behar duen berdintasun printzipioarekin.

Xedapen Gehigarriak ezartzen du begiratu behar dela entitateek 63. artikuluko horretako azken lerroaldeak ezartzen zuen kenkaria aplikatzeko lehendik zuten eskubidea (orain azken lerroalde hori indargabetu baita).

Azken Xedapena foru legeak indar hartzeaz ari da.

Orain artekoa gogoan, bada, Nafarroako Gobernuari beharrezko iruditu zaio 24/1996 lege horretako zenbait artikulua aldatzea.

1. artikulua. 2001eko urtarrilaren 1etik aurrera hasi diren zergaldietarako, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko artikulua hauek honako testua izanen dute:

Bat. 50.1 artikulua.

“1. Hona zer mota orokor izanen duen zerga tasak:

a) 100eko 35.

b) 100eko 32,5 enpresa txikiarentzat.

Honako baldintzak betetzen dituen enpresa hartuko da enpresa txiki gisa:

a) Aurre-aurreko zergaldian izan duen negozio zifraren zenbateko garbia sei milioi euro baino gutxiagokoa izatea (998.316.000 pezeta).

Enpresa sortu berria bada, negozio zifra hori kalkulatzeko, jarduera benetan gauzatu den lehenbiziko zergaldia hartuko da aintzat. Aurre-aurreko zergaldia urtebete baino gutxiagokoa izan bada edo jarduera hori urtebete baino gutxiagoan gauzatu bada, negozio zifraren zenbateko garbia urtea osatu arte luzatuko da.

Delako enpresa sozietate talde bateko kidea bada (Merkataritza Kodearen 42. artikulua definitzen duen bezala), negozio zifraren zenbateko garbia talde horren kide diren sozietateen multzoa aintzat hartuta kalkulatu da. Irizpide hori bera aplikatu da pertsona fisiko bat, bera bakarra edo ahaide dituen beste pertsona fisiko batzuekin elkar hartuta (ahaideak lerro zuzenekoak nahiz aldamenekoak izan, odol bidezkoak nahiz ezkontza bidezkoak, bigarren graduraino, bigarrena barne), beste entitate kide diren batzuekiko Merkataritza Kodearen 42. artikulua aipatzen dituen kasuetako batean gertatzen bada.

Aurreko lerroaldean agintzen denari begira, Merkataritza Kodearen 42. artikuluko kasuak direla juzgatuko da Urteroko Kontu sendotuak Itxuratzeko arauen I. kapituluko 1. atalean aipatzen

direnak (abenduarien 20ko 1815/1991 Errege Dekretuak onetsitako arauak).

b') Aurreko a') letrako baldintzak betetzen ez dituzten entitateek zuzen nahiz zeharbidez sozietatean ehuneko 25 baino gehiagoko partaidetza ez izatea, non eta kapital-arrisku sozietateak edo funtsak ez diren edo enpresak sustatzeko sozietateak, partaidetza hori sozietate horien helburu soziala betetzearen ondoriozkoa denean.

Inoiz ez dira enpresa txikitat hartuko gardentasun fiskaleko araubidean zerga ematen duten sozietateak."

Bi. 72.3 artikulua.

"3. Ez da zilegi izaneren kapitulu honetan aurreikusten diren kenkariak osotara gehiagokoak izatea Espainian eta nazioartean bi aldiz zerga eman beharra galarazteko kuota osoa hobari eta kenkarietan gutxitzearen ondoriozko kuota likidoaren 100eko 35 baino.

Aurreko lerroaldean xedatu denagatik ere, goiko muga hori ez zaie honako inbertsioei aplikatu:

a) 63. artikuluan ezarri dena, sortu berriko entitateek jardueran hasi arte egindako inbertsioei dagokienean.

b) 66 eta 71. artikuluetan arautzen direnak."

2. artikulua. Foru lege honek indar hartzen duenetik aurrera, indargabetzen da 24/1996 foru legeko 63. artikulua azken lerroaldea.

Xedapen iragankorra

Foru lege honetako 2. artikuluan xedatzen denagatik ere, legeak indar hartu baino lehen sortuta zeuden entitateek zilegi izaneren dute 24/1996 foru legeko 63. artikuluko azken lerroaldeak jarduera hasi arte aktibo finko material berrietan egindako inbertsioetarako ezartzen zuen kenkaria egitea.

Azken xedapena

Foru lege honek, bertan agintzen diren ondorioekin, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, alargun pentsioetarako laguntza bereziei buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko irailaren 17an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentuko Taldeak alargun pentsioetarako laguntza bereziei buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Alargun pentsioetarako laguntza bereziei buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Bigarrena.- Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2001eko irailaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrús

Foru Lege proposamena, alargun pentsioetarako laguntza bereziei buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Foru Komunitateak, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoko laugarren xedapen iragankorraren arabera eta abenduaren 19ko 2356/1984 Errege Dekretuaren bidez, eta Espainiako Konstituzioko 148.1.20 eta 44.17 artikuluekin bat, eskumen osoa eskuratu zien gizarte laguntzaren arloan. Horren ondorioz, Nafarroako Parlamentuak Gizarte zerbitzuei

buruzko martxoaren 30eko 14/1983 Foru Legea onetsi zuen. Laguntza ekonomikoak, lege horretan, baztertutako pertsonen bergizarteratzea bultzatzeko neurri gisa hartzen dira.

Eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legeak aldarrikatzen du Nafarroako herritarrek oinarritzko errenta izan dezatela, dituzten eskubideez bere osotasunean baliatzeko aukera izan dezaten. Legearen artikuluetan, oinarritzko errenta horren zenbatekoa eta jasotzen dutenen betebeharrak ezartzen dira.

Nafarroako gizarte bazterkeriaren aurkako planak ezartzen du oinarritzko errenta egokitu egin behar dela, Nafarroan errenta horretaz baliatzen diren familiek egun dituzten behar eta ezaugarrietara hain zuzen ere, eta pobrezia larrian dauden familia horiei gutxieneko dirusarrera batzuk bermatu behar zaie.

Alargunak, Alargun elkarten federazioen konfederazio nazionalean baitaude, eskatzen ari direna da, eta horrela onetsi zuen Nafarroako Parlamentuak gizon eta emakume alargunen pentsioen parekatze ekonomikoa Estatu guztian. Eskaera hori erabat dago justifikatuta, eta parekatze hori da borrokagaietako bat.

Alargun pentsioaren helburua da hildakoaren familiaren beharrak asetzea eta familia horri bizibidea ematea. Hizpide dugun gizarte-errealitateak ez du zerikusi handirik, zorionez, egungoarekin. Garai zailak ziren, eta aukera berdintasuna epe luzeko helburua zen. Familiaren mantenua familia-buruaren baitan zegoen soilik eta emakumeak ordainsaririk gabeko lana egiten zuen, Gizarte Segurantzaz kotizatu gabe eta, edozer gertatuta, ez zuen inongo eskubide pasiborik.

Alargun eta zurtasun pentsioen araubidea inguru oso zehatz batean dago justifikatuta, eta garai oso berezi batean, non gizona edo senarra zen lan egiten zuena, kotizatzen zuena eta gizarte prestazioa edo pentsioa izateko eskubidea zuena.

Gaur, ordea, ez du justifikaziorik eta zaharkitua dago.

Egoera oraindik ere okerragoa zen Konstituzio Auzitegiak 1983ko azaroaren 23ko epaia eman aurretik; epai horrek gizonen zein emakumeek jaso zitzaizkela alargun pentsioak ezarri zuen, eta alargun pentsioaren zenbatekoa hildakoaren oinarri arautzearekin % 45 izatera pasa zen.

Orain gutxi, pentsioei buruzko hitzarmen eta akordio batzuen barruan, alargun pentsioa jasoko dutenen prestazioak handitu egin dira. Arau orokor gisa, oinarri arautzearekin % 52 izatera pasa dira, eta % 70 familia zamak dituzten pentsiodunentzat. Hori hobera egitea da, baina hobetzea txikia da.

Zenbait esparrutan ari dira eskatzen mugimenduak eta babesak, eta, denetan ere, senarraren pentsioaren ehuneko ehun eskatzen da, bai eta emakume eta gizon alargunen parekatze ekonomikoa ere –horiek gizonetakoak edo emakumeetakoak diren kontuan izan gabe–, edo kotizatu eta kotizatu ez dutenak parekatzea; izan ere, kontu horrek ezin du egon kaltetuen sexuaren baitan.

Horregatik guztiagatik, uste dugu benetako aldaketa dela beharrezkoa, nabarmena baita justizia eza. Justizia falta hori deuseztatu beharra dago, eta geroz eta tratamendu zuzenagoa eman behar zaie 65 urtez goiti izan eta ezkondu nahi duten pertsonen –pentsioa galtzeko beldurrez ez dira ezkontzen–, umezurtzei, etab. Nafarroako Parlamentuaren esparruaren gaindi dagoen aldaketa bat heldu artean, ahal duguna egin behar dugu, horretan sinesten badugu, bidegabekeria horiek desagerrarazteko.

Nafarroako egoera ulertzea are zailagoa da. Estatuko batez besteko soldatarik altuenetakoa daukagu: 253.000 pezeta. Nafarroan, 26.013 alargun ditugu 61.349 pezetako batez besteko pentsio batekin; horietan, % 88 ez dute lanbide arteko gutxieneko soldata gaitzen, eta % 10 besterik ez dago 70.000 eta 100.000 pezetako tartean. Datu horiek argi erakusten dute egoera, eta ezberdintasun horiek deuseztatzeke ekintza politikoak lehenbailehen abian jartzea justifikatzen du.

Bestalde, Nafarroan, batez besteko pentsioa, 2001eko uztailaren 1ean, 101.367 pezetakoa zen, eta nabarmena da alde handiak daudela pentsio batzuen eta besteen artean.

Beraz, emakume eta gizon alargunekiko diskriminazioa dago, hala Nafarroan nola Estatu osoan. Gure erkidegoan, alde horiek konpontzerik badago, alargun pentsio gutxieneko laguntza bere-

ziak emanez lanbide arteko gutxieneko soldata berdindu arte.

Foru lege honen helburua da egoera makurrenean dauden alargun pentsioei laguntza ematea; bestalde, Nafarroako Parlamentuak zenbaitetan gizarte gaien arloan erakutsi duen kezka erakusgarri da.

1. artikulua. Alargun pentsioak jasotzen dituzten pertsonentzako legeek aurreikusitako bestelako baliabide eta gizarte-prestazio ekonomikoak osatzearren, prestazio osagarri bat ezartzen da, kasuan kasuko erakundeak 2002rako ezarritako lanbide arteko gutxieneko soldataren zenbateko osoa lortzeko behar den adinakoa.

2. artikulua. a) Alargun pentsioek jasotzen dituzten baliabide ekonomikoak osatu eta lanbide arteko gutxieneko soldataren % 100 egin dezaten behar den zenbatekoa izan du prestazio osagarri horrek.

b) Urtero ezarriko da zenbat diru jasoko duen prestazio osagarri hori jaso behar duen pertsona bakoitzak.

3. artikulua. Prestazio osagarria eskatu dutenen eta prestazio horren titularraren betebeharrak.

Interesa duten pertsonak, betiere, eskabidean jartzen dituzten datuen erantzule izan behar dira. Nafarroako Gobernuak, emaniko informazioa benetakoa dela egiaztatzeke, datu guztiak begiratu dituzte, berak dituen fitxategiak erabilita.

4. artikulua. Prestazio osagarriaren amaiera.

Alargun pentsioaren prestazio osagarria amaitu egingen da, baldin eta lanbide arteko gutxieneko soldataren % 100 gaitzen badu alargun pentsioa jasotzen duen pertsonak.

5. artikulua. Aurrekontuan esleitutako diru kopurua.

Alargun pentsioaren prestazio osagarriari aurre egiteko, kasuan kasuko kontusailaren kargura esleituko dira aurreko artikuluetan ezarritako betebeharrak aurre egin ahal izateko beharrezkoa den diru kopurua.

6. artikulua. Prestazio osagarriaren ordainketa.

Prestazioa eman eta hurrengo hilabeteko lehenbiziko egunetik aurrera izan behar du eragina ezaizpenak.

Xedapen gehigarria

Sei hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak enpleguari buruzko plan berezi bat prestatuko du eta, horren bidez, saiatuko da alargunen berezitasunei aurre egiten eta gizarte talde horrek duen langabetu tasa handia txikiagotzen.

Azken xedapenak

Lehena. Gizarte Ongizate kontseilariari esku ematen zaio foru lege hau garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko.

Bigarrena. Foru lege honek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeri buruzko martxoaren 5eko Foru Legea aldatzekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko irailaren 17an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Demokratikaren Elkargunea Parlamentuko Taldeak basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeri buruzko martxoaren 5eko Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeri buruzko martxoaren 5eko Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Bigarrena.- Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2001eko irailaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeri buruzko martxoaren 5eko Foru Legea aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

2000. urtean, Nafarroako Foru Komunitatean, basa animaliek eragindako istripuak hamalau izan ziren, eta urte horretan berean gidariek hainbat

“topaketa” izan zituzten basa animaliekin. Zorionez, halere, ez da hildakorik izan orain arte, baina eragindako kalte ekonomikoa geroz eta handiagoa da. 1999. urtean kalte-ordainen inguruko 61 espediente tramitatu ziren Ingurumen Departamentuan, bai partikularrenak bai ehiza barrutienak. Horiei beste zazpi gehitu behar zaizkie, kalteak milioi erdi bat pezetatik gorakoak izaki Ondare Departamentura igorri baitziren.

Bistan denez, azken urteotan ehiza larriko espezieek eragindako istripuen kopurua handitzen joan da eta behar lukeena baino askoz handiagoa da egun. Toki askotan, bizilagunik ez egotea eta harrapariak desagertu izana nahiko arrazoi badira beste espezieen ugalketa eta haiek eragindako kalteak ulertzeko.

Baina egia da, bestalde, trafikoa duten errepi-deetan istripuen arriskua ahal den txikiena izateko, ehiza espezien dentsitateak galzorian jartzearaino jaitsi beharko lirakeela. Horrez gain, egungo legeek eskatzen dute administrazio eskudunak onetsitako plan bati jarraikiz egin behar dela ehiza, hau da, ehiza barrutiek ehizatu ahal dutena ehizatzen dute.

Foru Komunitateko egungo legeek ehiztarien eta barrutien gain uzten dute ehiza faunak nekazaritzan nola zirkulazioko istripuen ondorioz eragindako kalteen erantzukizuna.

Nafarroan, istripu horien erantzule kasuko ehiza barrutiaren kudeaketa esleitua duena da, hau da, gehienbat herrietako ehiztari elkarteak, betiere istripua barruti barrenean gertatu bada eta istripua sortu duen espeziea kasuko ehiza antolatzeko planean aprobetxamendurako araututa badago. Hori da Basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeri buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legeak taxuturiko egoera.

Nafarroako Parlamentuak 1997an onetsi zuen Ehizaren plan estrategikoak, gaian zerikusia zute-
nen lankidetzeta eta partaidetzarekin egindakoak,
ekintza eta neurrien artean ezartzen zuen, zehaz-
ki 3.1.1 ekintzan, beharrezkoa zela “2/93 Foru
Legearen 31.4, 57.4 eta 57.5 artikulua aldatzea,
foru administrazioaren gain uzteko basa espezie
guztiek, ehizakoek barne, egindako kalteak, ehiza
espezieek nekazaritzan eragindako kalteak
salbu”.

Istripu horien erantzule kasuko ehiza barrutia-
ren kudeaketa esleitua duena da, hau da, gehien-
bat herrietako ehiztari elkarteak, betiere istripua
barruti barrenean gertatu bada eta istripua sortu
duen espeziea kasuko ehiza antolatzekeo planean
aprobetxamendurako araututa badago.

Hala ere, aseguru poliza orokorrak ez ditu har-
tzen egun gertatzen diren istripu gehienak, duen
frankizia altuagoa izaten baita ehizarako anima-
liek ibilgailuetan eskuarki sortzen dituzten kalteak
baino. Eta kalteok hartzen dituenetan ere, franki-
ziapeko parte kentzen zaio kalte-ordainari.
Horren ondorioz, ehiza barrutietako arduradunek
ez dagokien kostua hartu behar dute beren gain,
jakin gabe horri nola aurre egin.

Basa fauna eta haren habitatak babestu eta
kudeatzeko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legeak
ezartzen duenez, ehiza lizentziak 5 urtekoak izan-
en dira. Bost urteko lizentzien aplikazioak sekto-
rearen kexak eragin zituen eta horren haritik, apiri-
laren 11ko 77/1994 Dekretuak lizentziaren
zenbatekoa epe bakar batean edo bost urtekotan
ordaintzeko aukera ezarri zuen. Aukera horrek,
ordea, arazo handiak sortzen ditu kudeaketa
administratiboan, ordaindu gabeko urtekoak
kobratzeko eta pagamenduen kontrolerako, eta
arazoak ekar ditzake etorkizunean orain egiten
den eta ehiztarientzat hain eroso den posta
bidezko pagamendu sisteman. Halaber, traba da
lizentzia eskuratzeko tramiteak arintzearen beste
autonomia erkidegoekin lankidetzeta hitzarmenak
izenpetzeko.

1. artikulua. Basa fauna eta haren habitatak
babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko
2/1993 Foru Legearen 57.4 artikulua aldatu da.
Haxe da testu berria:

“Foru lege honetan ezarritako eskubideak eta
betebeharrak, ehiza barrutiez den bezainbatean,
jabeari edo finkez eta haien aprobetxamenduaz
baliatu eta gozatzea dakarten beste eskubide
erreal edo pertsonalen titularrei dagokie, lege zibi-
letan xedatutakoarekin bat, salbu eta basa espe-
zieek, ehizakoek barne, eragindako kalteen

kasuan, berauen erantzule foru administrazioa
izanen baita”.

2. artikulua. Basa fauna eta haren habitatak
babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko
2/1993 Foru Legearen 57.5 artikulua aldatu da.
Haxe da testu berria:

“Barrutietatik heldu diren ehiza edo arrantzara-
ko espeziek eragindako kalteen ordainak foru
administrazioak hartuko ditu bere gain”.

3. artikulua. Basa fauna eta haren habitatak
babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko
2/1993 Foru Legea aldatu zuen ekainaren 21eko
8/1994 Foru Legearen 4.4. artikulua aldatu da.
Haxe da testu berria:

“Ehizarako edo arrantzarako erabili daitekeen
basa faunak eragindako kalteen ordainak foru
administrazioak hartuko ditu bere gain”.

4. artikulua. Basa fauna eta haren habitatak
babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko
2/1993 Foru Legearen 59.3 artikulua aldatu da.
Haxe da testu berria:

“Lizentziak Lurraldearen Antolamendu eta
Ingurumen Departamentuak emanen ditu; Nafa-
rroako Foru Komunitatearen esparruan izanen
dute balioa, urtebeterako nahiz bost urtetarako,
aukeran, eta epe horietarako ere berritu ahal izan-
en dira”.

5. artikulua. Basa fauna eta haren habitatak
babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko
2/1993 Foru Legearen 54.5 artikulua aldatu da.
Haxe da testu berria:

“Ehiza antolatzekeo planek erreserbak ezarriko
dituzte eremu jakin batzuen balio ekologikoan
oinarrituta edo espezien babes eta garapenari
laguntzearen. Erreserba horietan ez da ehizan,
arrantzan edo animalientzat gogaikarri izan daite-
keen beste edozein jardueratan aritzerik izanen,
lur horien nekazaritza, abeltzaintza edo oihangin-
tzako erabilerari dagokiona ez bada. Ehiza antola-
tzeko planak mugatuko ditu espezie zehatz baten-
tzako erreserbak edo/eta babestokiak lurra eta
azalera zein diren, baimendutako barrutiaren
azalera osoan zuzenean oinarriturik.

6. artikulua. Basa fauna eta haren habitatak
babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko
2/1993 Foru Legearen 72.a) artikulua aldatu da.
Haxe da testu berria:

a) Ehiza babesteko behar adinako zaintza
ematea barrutiari, ehiza antolatzekeo planari jarrai-
kiz. Horretarako, Lurraldearen Antolamendu eta
Ingurumen Departamentuak ezarriko du zainda-
rien gutxienezko kopurua eta haien dedikazioa”.

Xedapen gehigarria

Foru lege honek indarra hartzen duenetik urtebeteko epean, Nafarroako Gobernuak jarduketa plan bat prestatuko du, irtenbideak eskaintzeko eta basa faunak istripuak eragiteko arrisku handia dagoela egiaztatu den tokietan pasabideak jartzeko.

Xedapen indargabetzailea

Indarrik gabe edo aplikaziorik gabe gelditu dira Nafarroako Foru Komunitatean foru lege honen

kontra doazen maila bereko edo baxuagoko xedapen guztiak.

Azken xedapenak

Lehena. Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege hau garatu eta betearazteko behar diren arauzko xedapen guztiak eman ditzan.

Bigarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, pentsioen kopuruak lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzeko osagarriak jarri eta beste laguntza-prestazio batzuk hobetzeko

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko irailaren 17an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak pentsioen kopuruak lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzeko osagarriak jarri eta beste laguntza-prestazio batzuk hobetzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Pentsioen kopuruak lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzeko osagarriak jarri eta beste laguntza-prestazio batzuk hobetzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Bigarrena.- Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2001eko irailaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, pentsioen kopuruak lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzeko osagarriak jarri eta beste laguntza-prestazio batzuk hobetzeko

ZIOEN AZALPENEA

Gertaera lazgarri eta mingarria da, eta Estatu osoan agitzen dena: pentsio ez-kontributiboaren eta Gizarte Segurantzaren beste pentsio askoren dotazioa ez da lanbidearteko gutxieneko soldataren mailara ere iristen; soldata horrek, gainera, pisua galdu du, Europako batez besteko soldatarekin konparatuta. 1980an, Espainiak Europako Kontseiluaren Gizarte Gutuna izenpetu zuenean, gure estatuko lanbidearteko gutxieneko soldata Europako batez bestekoaren % 47 zen. 1999aren bukaeran, aldiz, % 36 zen.

Aipatu datuek agerian uzten dute Europarekiko urruntasuna, gizarte-arazoetan. Gizarte-babesaren indize gurea Europako Batasuneko batez bestekoaren ia sei puntu azpitik dago. Gure pentsionistek, gaur egun, erosteko ahalmen galera handia metatu dute; zera dakar horrek, alegia: badaezpadako iraupena pentsionisten erdia baino gehiagorentzat, eta batzuetan, pobrezia gorria.

Berehala konpondu behar da egoera hori; izan ere, Estatuko Gobernuak ez du gizartearen beharrezantzat hartu nahi izan, eta ez du pentsioen gehikuntza progresiboa aurreratu, errealitatea begibistakoa bazen ere.

Elkartasunik gabeko eta bereizkeriazko egoera izateaz gain, gizarte-haustura ere areagotu egiten du. Hain zuzen ere, pobrezia horrek nagusiak eta bereziki emakumeak ukitzen ditu, eta oso zaila da justifikatzen ekonomi hazkundeko testuinguru batean, non egoera ekonomiko askoz hobea duten beste gizarte-maila batzuetakoei zerga-beherapena ezarri zaien, gizarte-ekitatea finantzatzeko dirusarrera publikoak gutxitzeaz batera. Jarrera hori justiziaren hatsapen oinarrikoen kontrakoa da.

Estatu osorako ekimen faltak –Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren datuak aurrean bazituen ere–, eta justifikaziorik gabeko pobrezian bizi diren pertsonen benetako beharrian sozialak bultzatu ditu autonomia erkidego batzuk zenbait neurri hartzera, eta beste batzuk Estatuko Gobernuari berehalako konponbidea bilatzeko erronka botatzera, beraien erkidegoetan pentsioak beraien kabuz igoko zituztelako mehatxupean.

Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren datuen arabera, 100.166 pentsiodun zegoen Nafarroan aurtengo urtarrilean, eta batez besteko pentsioa hileko 92.000 pezeta zen. Hala ere, mila pentsiodunek jasotzen du hileko 50.000 pezeta baino gutxiago, eta gure Komunitateko 26.013 emakume alargunek hileko 61.349 pezetako pentsioa dute. Nafarroan Estatuan bermatutako gutxienekoen azpitik zeuden 28.639 pertsonaren pentsioa osatzera eraman du alde ekonomiko horrek.

Nafarroan pentsio ez-kontributiboak jasotzen dituzten 3.523 pertsonen egoera (2001eko apirila) ere kontuan hartuz gero, egoera are gordinago agertuko zaigu. Izan ere, urteko 586.740 pezetana izendatu zaie guztiei, 41.910 pezetako 14 pagatan bananduta. Hutsaren hurrengo dira kopuru horiek, oinarri-oinarriko beharriaz ere aurre egiteko.

Estatuak, eskumen osoa izanik ere gai honetan, ez dio soluzioari ekin, eta egoera latza eratorri zaio Nafarroari, non pentsiodunen % 34ak 60.577 pezeta jasotzen baitu batez beste, eta % 6 ez da 32.000 pezetara heltzen. Egoera lotsagarria gure Komunitate honentzat; izan ere, superabita izan du azken aurrekontu-ekitaldietan, eta zerga-erreformak ezarri ditu, Foru Ogasunaren dirusarrerak murrizten dituztenak, eta, beraz, gizarte-orekarako politikei ekiteko ahalmen ekonomikoa ere gutxitzen dituztenak.

Erantzuna emateko eta desoreka ekonomikoa zuzentzeko tenorean jarri gaituzte datuok; izan ere, gure adintsuen bizi moduari eta, askotan, irauteari berari ere eragiten baitiete. Beraz, pentsio kontributiboak eta ez-kontributiboak osatu eta hobetu behar ditugu. Nafarroako aurrekontuek gizarte-kohesioa hobetzeko tresna izan behar dute; orobat, aipatu taldeen oinarriko beharriaz aiseko direla bermatu, kontuan izanik, gainera, gure Komunitatearen gizarte- eta ekonomia-egoera, Estatukoarena baino hobea baita alor askotan.

1. artikulua. Nafarroako Gobernuak, Nafarroako hurrengo Aurrekontu Orokorretatik hasita, osatu egiten ditu Foru Komunitatean jasotzen diren pentsio kontributibo eta ez-kontributibo kopuruak, eta hauxe ahalbidetuko du:

A) Gutxieneko pentsio kontributibo lanbidearteko gutxieneko soldatarekin parekatzea.

B) Pentsio ez-kontributibo lanbidearteko gutxieneko soldataren % 75era iritsi dadila.

C) A eta B ataletan esaten diren neurriak 2002ko urtarrilaren 1etik aitzina izanen dute eragina.

2. artikulua. Foru Lege honetan jarri diren neurrien onura eskuratu ahal izateko, ezinbesteko baldintzak izanen dira:

A) Nafartasuna izatea, eta Foru Komunitatean egiazki bizi izatea.

B) Nafartasunik ez dutenek, hauxe egiaztatu behar dute: Nafarroan egiazki bizi direla, hamar urteko antzintasunarekin, gutxienez.

3. artikulua. 2002 urtetik hasi eta hiru urteko epean, gainerako laguntza-prestazioetara hedatuko da hobekuntza ekonomikoa, lanbidearteko gutxieneko soldatarekin parekatu arte.

Xedapen gehigarria

Nafarroako Gobernuak erregelamenduz garatu behar du Foru Lege hau, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hiru hilabeteko epean, gehienez ere.

Azken xedapena

Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta hurrengo egunean hartuko du indarra Foru Lege honek.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da argiteria instalazio eta aparatuak arautzeko foru lege proiektu bat igor dezan

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da argiteria instalazio eta aparatuak arautzeko foru lege proiektu bat igor dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko irailaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001eko irailaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, hurrengo mozioa aurkeztu du ondoko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Gure inguruan kezka pizten hasi den fenomeno da argi-kutsadura; halakotzat hartzen dugu argiteria instalazioen diseinua eta haren gaueko erabilera okerra. Kutsadura mota horren ondorioak, besteak beste, hauek dira: argia etxeetan sartzten da, energia alferrik erabiltzen da, eta biodi-

bertsitatearen egoera aldatu egiten da. Horrela, Europar Batasunak ere dirulaguntzak ematen ditu argiteria instalazio eta aparatuak egoki erregulatzeko, eta Kataluniak, orain gutxi, lege bidez arautu du gai hori.

Horregatik, talde honek uste du beharrezkoa dela foru lege bidez arautzea zenbait mekanismo argi-kutsaduraren arazoei erantzuna eman ahal izateko; betiere, ez dugu ahazten argi artifizial hori nahitaezkoa dela hala bizigarritasunerako nola segurtasunerako. Arau hori oinarri hartuta, administrazioak sustapen lana egin beharko luke eta argiteria aparatu egokiak instalatu.

Horregatik aurkeztu dugu ondoko erabaki proposamena:

Nafarroako Gorteek Gobernuari eskatzen diote igor dezala foru lege proiektu bat arautzeko kanpoko eta barruko argiteria instalazio eta aparatuak, eta horiek sor dezaketen argi-kutsadura.

Arauk ondoko hauek izanen ditu helburu: energia aurrezte, etxe barrenetan argia sartzea ekiditea, egoera naturala errespetatzea ahal den neurrian eta zerua ikustean argi-kutsadurarik ez izatea. Horretarako, argiteriak bete beharreko baldintzak ezarriko dira, eremuen eta horietan sor daitezkeen kalteen arabera; administrazio publiko- en jarduketak ezarriko dira; halaber, laguntza- araubide bat eta zehapen-araubide bat ere ezarriko dira.

Iruñean, 2001eko irailaren 12an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzesten du Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren jarrera

BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Batasuna Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzesten du Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren jarreran".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko irailaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztzen ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001eko irailaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Batasuna Parlamentuko Taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Nafarroan etxebizitzaren arloan UPNren Gobernua aplikatzen ari den politikaren inguruko eztabaida interes bereziko erreferentzia izaten ari da legegintzaldi honetan; izan ere, eragina du gizartean, eta politika horren efektuak Nafarroa osoko herritarrek nabari dituzte, bereziki gizartearen zenbait sektorek. Horregatik, interes bereziki espero zuten Parlamentuko taldeek 2001-2004

eperako etxebizitza planaren eztabaida; hala ere, Nafarroako Gobernuak, Marcotegui jauna gai horretako arduradun nagusi duela, plan hori Nafarroako Parlamentura igorri badu ere, ez da izan eztabaidatzeko, baizik eta horren berri emateko soil-soilik.

Horregatik, Parlamentuak, bertako talde politikoak alde dituela, Gobernuari eusten diona salbu, bitan eskatu dio jada, Eledunen Batzarrak eta Osoko Bilkurak hartutako erabaki ofizialen bidez, plana igor dezala Parlamentuko taldeek ekarpenak egin ahal ditzaten. Eskaera horiek, ordea, ez dute baiezkorik jaso orain arte.

Horregatik guztiagatik, eta begi bistakoa denez Nafarroako Gobernuak ez duela asmorik parlamentu-aginduak betetzeko, Nafarroako Parlamentuak honako erabaki proposamena hartu du:

Nafarroako Parlamentuak Marcotegui jaunaren jarrera gaitzesten du; izan ere, Parlamentuak uste du 2001-2004 eperako etxebizitza plana ez igortzea, bertan eztabaidatua eta onetsia izan dadin, erabateko errespetu falta dela, eta mespretxu egitea dela Biltzarraren gehiengoak gai honi buruz hartutako erabakiei. Plana ez igortzeko erabaki horren helburu bakarra da Nafarroako Parlamentuan ez dadila etxebizitzaren arloko eztabaida zabal bat eman, argi erakutsiko bailuke Gobernuak ez duela gaitasunik, ezta borondaterik ere, gizarte osoarengan eragin larria duen arazo bati konponbidea emateko.

Iruñean, 2001eko irailaren 12an

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa eta prezio publikoei buruzko martxoaren 27ko 7/2001 Foru Legea bete dezan

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa eta prezio publikoei buruzko martxoaren 27ko 7/2001 Foru Legea bete dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko irailaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Toki Administrazio Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001eko irailaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua babesean, hurrengo mozioa aurkeztu du Toki Administrazio Batzordean eztabaidatzeko.

Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa eta prezio publikoei buruzko martxoaren 27ko 7/2001 Foru Legeak, 1. artikuluan hau dio: "Foru lege honen xedea da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa eta prezio publiko propioen araubide juridikoa ezartzea."

11. artikulua, bestalde, zein diren onurak eta zein onuradunak ezartzen du; honela dio hitzez hitz:

"Foru Komunitateko Administrazioa, Nafarroako toki erakundeak, Estatua eta gainerako lurralde-nahiz instituzio-erakunde publikoak daude tasetatik salbuetsirik. Hala ere, zilegi izanen da tasa bakoitzaren arauetan beste onura fiskal batzuk ere aurreikustea, zergagaiaren ezaugarrien edo subjektu pasiboaren izaeraren arabera."

Auzitegi Gorenak, 2000ko irailaren 20an emaniko epai batean, hizpide hartu ditu probintzia-aldizkarietan argitaratzeko tasak.

Epai horretan aztertu zena izan zen argitaratze batzuk zirela-eta probintzia-diputazio batek Estatuko administrazioari eginiko zenbait likidazio.

Auzia konpontzearen, Auzitegi Gorenak egungo legediak ematen duen tasa kontzeptuari helitzen dio. Kontzeptu horren arabera, tributu horren zergagaiaren oinarria da jarduerak edo zerbitzuak sorraraz dezala subjektu pasibo bat, edo hari buruzkoa izan dadila edo bereziki hura uki dezala. Subjektu pasiboa, beraz, bereziki onura jasotzen duena izanen da.

Kontzeptu hori oinarri hartuta, eta auzitan jartzen zen tasari aplikatuz, aldizkari ofizialean iragarkiak jartzeko tasari alegia, auzitegiak uste du tasa hori sortuko dela soilik iragarkia argitaratu eta horren onura pertsonala edo ondasunezkoa hartzen duen "interesdunik" badago.

Horren arabera, Auzitegi Gorenak dio ezen prozeduran "interesdunik" ez bada agertzen, "administrazio publikoak egintza administratiboak eman eta horiek aldizkari ofizialetan argitarazteak –probintzia-tasa baten zergagaia izan daiteke– ez diela kalte edo onura berezirik ekartzen administrazio horiei", baizik eta argitalpen hori interes orokorrari begira egiten dela; izan ere, prozedura administratiboak eraginkorra izan behar du eta babestutako interes publikoari erantzun behar dio. Horrek ez dakarkio inongo onura partikularrik egintza eman duen administrazio publikoari, eta ezin daiteke tasaren subjektu pasibo izan.

Horrenbestez, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa eta prezio publikoei buruzko martxoaren 27ko 7/2001 Foru Legearen 11. artikuluari eta berriki emaniko epai horri jarraituz, Nafarroako Gobernuak ez du tasarik kobratu behar Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragarkiak jartzeagatik. Horregatik aurkeztu dugu honako erabaki proposamena.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomo-

en tasa eta prezio publikoei buruzko martxoaren 27ko 7/2001 Foru Legearen 11. artikulua bete dezan, non ezartzen baita zein diren onura fiskalak eta zein Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragarriak argitaratzeko tasaren onuradunak, eta Nafarroako toki entitateak salbuetsi eta ez diezaiela tasarik likidatu.

Iruñean, 2001eko irailaren 12an

Eleduna: Juan Cruz Alli Aranguren

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehentasuna eman diezaien Foru Komunitateko errepideei buruzko 1998-2005erako planeko zenbait obrei

ERRETIRATUTAKO MOZIOA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeak, ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehentasuna eman diezaien Foru Komunitateko errepideei buruzko 1998-2005erako planeko zenbait obrei".

lamentuko Taldeak aipatutako mozioa erretiratu zuela jakitun zegoela adierazi zuen. Mozio hori 2001eko maiatzaren 28ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko irailaren 17an

Mahaiak, 2001eko irailaren 17an egindako bileran, Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Par-

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

F saila:
GALDERAK

Ezgaitasun psikikoa duten pertsonentzako aisialdirako programei buruzko galdera*FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko irailaren 17an egindako bilkuran, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak ezgaitasun psikikoa duten pertsonentzako aisialdirako programei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko irailaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Askotariko Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari Milagros Rubiok andreak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Azken urteotan, Nafarroako zenbait elkartetan aurrera eramano aisialdi programen barrenean eman zaie laguntza ezgaitasun psikiko eta adimen gaixotasunak dituztenei; finantzaketa funts publikoen bidezkoa izan da. Orain, pertsona mul-

tzo horiek ez dute aisialdi programarik; horregatik, hau jakin nahi da:

Zergatik ez dira oraindik abian jarri Nafarroan ezgaitasun psikiko eta adimen gaixotasunak dituztenentzako aisialdi programak?

Programa horien atzerapena ikusirik, –garai honetarako ohikoa zen elkartek programa horiek eta beste batzuk aurrera eramaten aritzea–, zer beste aukera eman die Nafarroako Gobernuak pertsona multzo horiei?

Aurten zer diru kopuru prestatu diren elkarteei dirulaguntzak eman eta hurrengo programa hauei aurre egin ahal izateko jakin nahi dugu: aisialdia, etxeko laguntza, asteburuko aisialdia, jarduera tailerrak, txangoak eta kirol egokitua

Nahikoa al dira dauden baliabideak pertsona multzo horiek dituzten benetako beharrei –profesionalak, boluntarioak, guneak eta zuzkidura ekonomikoa– aurre egiteko?

Askotariko Parlamentuko Taldeko parlamentaria: Milagros Rubio

Iruñean, 2001eko irailaren 7an

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

Oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko Foru Legearen betetzeari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI M^a ISABEL ARBONIÉS BERMEJO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko irailaren 17an egindako bilkuran, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko Foru Legearen betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko irailaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko Gizarte Gaietako Batzordetarako eledun M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Aurreko irailaren 5ean, Gizarte Gaietako Batzordeak eginiko lan bileran, Nafarroako gutxitu fisikoen koordinakundeko ordezkariak jakinarazi zuten ezen Nafarroan egun aurrera eramaten ari diren zenbait proiektu berraztertu egin beharra dagoela, ez baitute oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legea betetzen; horretarako, koordinakundeak

badu arkitektura oztopoak kentzeari buruzko kabinete aholku-emaile bat, laguntzeko gertu.

Sarrigureni dagokionez, adierazi zuten beheko solairua gehi beste bi solairuko etxeak igogailu gabe eraikitzekeo proiektuak sarbiderik gabe uzten dituela mugikortasun urriko pertsonak; adinagatik, gutxitze fisikoren batengatik edo bestelako arrazoiren bategatik mugikortasun urriko pertsonak, alegia.

Halaber, Baluarte auditorioan, oraindik ere eraikitzen ari baitira, sarbide arazoak daude (arrapalarik gabeko eskailerak eraikinaren barrenean) mugikortasun urriko pertsona edo elbarrientzako.

Horregatik, hau jakin nahi da:

1.- Hartu al da kontuan arkitektura oztopoak kentzeko dagoen legezko beharra Sarrigureneko etxebizitzak eraikitzekeo proiektuan?

2.- Oztopo fisikoei buruzko 4/1988 Foru Legea betetzeko, jarriko al da igogailu edo bestelako bitartekorik mugikortasun arazoak dituzten pertsonen sarbidea izan dezaten?

3.- Baluartearen proiektuan, aldatu al da sarbiderik, hala nola kafetegikoa, mugikortasun arazoak nahiz ezgaitasun fisikoa duten pertsonak ere sartzeko modurik izan dezaten?

Iruñean, 2001eko irailaren 10ean

Foru parlamentaria: M^a Isabel Arboniés Bermejo

Nafarroako Gobernuko kontu-hartze sistemari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko irailaren 17an egindako bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak Nafarroako Gobernuko kontu-hartze sistemari buruzko Foru Legearen betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko irailaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari Begoña Errazti Esnalek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak xedatutakoaren babesean, hurrengo galdera egin dio Ekonomia eta Ogasun Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Aurtengo udaran Estatuan izandako gertakariak, zeinen ondorioak ezin baititugu oraindik ere neurtu, kontrol lanak egiten dituzten instituzioak garrantzitsutzat jotzera behartzen gaitu; gurean, lan horretara emanak dauden foru instituzioak.

Komunikabideetan agertutako berriak ikusita, eta ikerketa batzordearen lanen ondorioen esperoan, badirudi zerbitzu tekniko hutsak zirenak ongi aritu zirela eta eduki politikoagoa zuten agintaritzamailetan izan zirela iregulartasunak.

Begi bistakoa da barneko kontrol sistema zuzen batek deserosoagoa egin dezakeela kudeaketa, baina zergak ordaintzen dituztenen diruak

egokiago kudeatuko direla ere hobeto bermatzen du.

1999 urtean, Nafarroako Gobernuaren barneko kontrol sistema (kontu-hartzea) aldatu zen.

Ekitaldi horretako kontu orokorreari buruz eginko txostenean, Kontuen Ganbarak kritikatu egin zuen sistema berriak zuen behin-behinekotasuna. Ezaguna izan zen, gainera, garai hartan kontu-hartzaile zirenei ez zitzaizkiela gustatu harturiko konponbideak.

Egoera hau behin betikoz konpontzeko epe bat pasatzen utzita, nahikoa gure ustez, eta behin betiko konponbidearen berri ez dugunez, hurrengo galderak erantzutea nahi dugu:

1.- Zer egoeratan dagoen egun kontu-hartze taldea. Zenbat diren. Zer prestakuntza duten. Zer lan egoeratan dauden, eta abar.

2.- Nola balioesten duen Gobernuak egungo egoera.

3.- Zer egitea pentsatzen duen Gobernuak behin betiko konponbidea emateko egoera honi.

4.- Aurreikusirik al duen kontu-hartzaile talde bat egitea, eta zer nolako autonomia eta beregaintasun maila izanen duen.

5.- Aurreko galderaren erantzuna baiezkota izatekotan, zer epetan eta nola egingen den.

6.- Erantzuna ezezkoa bada, zer beste aukera aztertuko dituen zergak ordaintzen dituztenen diruak hobeto kontrolatzeko.

Iruñean, 2001eko irailaren 12an

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

G Saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Biltzarrean izan diren altak eta bajak

Bajak: Pablo Muñoz Trigo jauna

Altak: Mariné Pueyo Danso andrea

Iruñean, 2001eko irailaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**Foru parlamentari Mariné Pueyo Danso andrea Batasuna Parlamentuko
Taldean sartzea**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2001eko irailaren 10ean egindako bilkuran, foru parlamentari Mariné Pueyo Danso andrea Batasuna Parlamentuko Taldean sartzeaz jakitun dagoela adieraztea erabaki zuen.

Iruñean, 2001eko irailaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Nafarroako Parlamentuak izendatu behar duen Nafarroako Kontseiluko kide bat hautatzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2001eko irailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Pedro Charro Ayestarán jaunak Nafarroako Kontseiluko kide izateari uko egin dio, eta Gobernuko Lehendakariak, irailaren 11ko 8/2001 Foru Dekretuaren bidez, hori onartu du. Hori guztia ikusita, Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legeko 4 eta 11.3 artikuluetan xedatutakoarekin bat, ERABAKI DUT:

1. Nafarroako Kontseilurako kide berri bat, zeinen hautaketa Nafarroako Parlamentuari baitago-

kio, hautatzeko prozedura hastea eta Parlamentuko taldeek izangaiak aurkezteko epe bat irekitzea, 2001eko urriaren 17an 12:00etan bukatuko dena.

2. Hautatze prozedura Nafarroako Parlamentuak izendatu behar dituen Nafarroako Kontseiluko kideak hautatzeko arauekin bat eginen da (1999ko urriaren 20ko 12. NPAO).

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2001eko irailaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri
edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.300 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--